

PEDRO H. SARRIONANDIA
GARAITIK MAROKORA ETA ITZULERA

DURANGO PUDO SER DETROIT

ZORNOTZAKO BATAILA

LA EDAD DE ORO DEL CASERIO VASCO

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

6.zk 2012 5€





BARRUKO IBILBIDEAK

ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.





ANDIKOAKO TXINTXAUNA

Zenbat aldiz ez ote ginen ibiliko
Andikoako elixaldetako txintxaunetan!

Artean oinak lurrera iristen ez
zitzaikigula, zangoak luzatu eta
bultza aurrera, bultza atzera...

Batzuetan zapatila puntekin inguruko
platano ondoen adarrak ukitzen saiatzen
ginen, beste batzuetan hegaz ari ginela
imaginatu.

Zangoak aurrera, zangoak atzera...

Lehen hiru txintxaun zeuden lekuan, bakarra
baino ez dago orain. Lantzean behin hona etorri
eta hegaz egiten dut begiak itxita. Haizea aurrera,
haizea atzera...

Kate herdoilduen karrankada hotsekin berbetan hasi
ohi da txintxauna, eta aspaldian inor ez zaiola
altzoan jarri esaten dit.

Hankak lurrera iritsi arren, ez genioke
tarteka txintxaunetan ibiltzeari utzi behar.





IURRETAKO ORGANOA

Iurretako organoa niretako aldi berean da aterpe bat eta plaza bat. Aterpea da gehien maite dudana jarduna egiten dudalako bertan: musikea.

Eta plazea da, herriaren parte dalako eta abesbatzagaz eta herritarraz batera eginkizun bat daukalako gizartean.

Organoaren gonbiteari herritarren erantzuna batzen jakonean, gogoak hegaz egiten dau. Gauza gutxi dago niretako hori baino ederragorik.

Norberaren zaletasuna eta auzolana uztartzea gauza ederra da, zorte handia. Eta nik Iurretako organoari zor deusat.

JAVIER BARRUETABEÑA | *IURRETA*







IURRETAKO PAPELERA

“Nongue zara? Ni Papelerakue”. Horixe izaten zan nire erantzuna urte askoan. Nire aite Bernan bizi zen, Papeleraren baserrian. Nire amaren familiaren baserria papelerak erosi zuen. Papeleran lanean ebizela egin ziren nobio ama eta aite. Papeleran bizi giñen, Papelarako elizara joaten giñen, eta Papeleraren eta bitsez betetako errekaeren artean pasatu gendun haurtzaroa.

Durungaldean bagaude Papelerako seme-alaba multzo bat. Papelerako usaina zein den ez dakigunak, gure barnean dagoelako. Niretzat toki polita zen. Orain badakigu, orduan pentsatzen genuenaren kontra, agian ez zela bizitzeko lekurik politena, baina, ez dugu dudarik, nahi ta be ez genduke hazteko giro hobea gorik topatuko.

ARANTZA ARRAZOLA | DURANGO



BIZITZAREN ABIADA

Bizimoduaren abiada,
gauza askoren joan-etorria eta
jendearen arteko tentsioak direla-eta,
leku gozo eta gozagarri hauetan ezkututzen naiz sarritan.


Ikasle garaian, azterketak prestatzeko bakea eta lasaitasuna behar nuenean,
gogoan dut Tabirara etortzen nintzela, Ibaizabal kutunera, Erreka Mariaren babesera.

Zer ez ote da erne hemen! Konponbideak, helburuak, asmo onak...
Gure bizitza xumerako patxada, lasaitasuna, oreka...

JESÚS EGIGUREN | *DURANGO*







LARRINGANDIK

Ez dakit bertako bakea dan edo akaso edertasuna, baina Durangaldea dan paradisu honetan, nire barrena asetu eta lasaitzen daben parajea da.

ESTI ZURIKARAI | *DURANGO*